

HITZ BITAN

‘Txinako harresia’ tinko zutik

SASKIBALOIA. Yao Ming jokalaria txinatarra maila bikaina ematen ari da NBAko azkeneko partidetan


Julen Etxeberria | DONOSTIA

Gerra baten erdian banintz bezala sentitu naiz. Arlo guztietan —ikusleak, pabiloia, estrategia, jokoa—, oldarkortasuna itzela da, izugarria benetan. «Inoiz ez dut horrelakorik bizi izan pista baten gainean». Hitz horiekin definitu zuen Yao Ming Houston Rocketseko pibote txinatar eta aurtengo *draft*-eko lehenak bere NBAko estreinako lehia. Mingek aulkian hasi zuen partida, eta pista gainean egon zen 11 minutuetan ez zuen saskiraterik lortu.

Aurretik, Mingek *draft*-eko lehen postuan egoteko meriturik egin zuen ezbaian jartzen zutenen argudioek indar handia hartu zuten gau horretan. Gauza bera zioten guztiek: «Altua da, oso altua —Mingek 2,26 metroko altuera dauka—, baina NBA bezalako Liga gogor batean hori ez da

nahikoa, inondik inora». Altuera izatea jokalaria bikaina izateko nahikoa ez dela arrazoitzeko, Shawn Bradley Dallas Mavericks taldean jokatzen duen 2,29 metroko pibote alemaniarra jartzen zuten adibide gisa. Hori gutxi baltz, zenbakiek ere ez zioten Mingi mesederik egiten, lehen bost partidetan batez besteko nahiko kaskarrak lortu baitzituen: 2,6 puntu; 3,6 errebote; eta 14 minutu pista gainean, ordezkoen aulkitik hasita, noski.

Mingek 22 urte ditu —23 urte egingo ditu bihar—, eta, munduko gaztek asko bezala, bideo jokoeetan jokatzea gustuko du, izugarri, jokalaria txinatarrak. Houstonera iritsi eta hurrengo hilabeteetan, hori besterik ez zuen egiten: etxera iritsi, eta, telebistako pantailaren aurrean, orduak eta orduak bideo jokoeetan igaro. Horrela oso zaila zen taldeko giroan barneratzea, eta



DAVID J. PHILLIP / AP

Yao Ming jaurtitzen, Filadelfia Sixersetako Art Long aurrean duela

SASOI BIKAIANEAN

Denboraldiko batez bestekoak hirukoiztu ditu Mingek, eta lehena da bi puntuko jaurtiketetan

horrek bere jokoan eragin zuzena zuen.

Jauzi itzela

Baina Ming egoera horri buelta ematen hasi zitzaion, eta ingelesa ikasten buru-belarri jarri zen. Aldaketa hori laster ikusi zen pistan. Iragan azaroaren 17an, Lakersen aurka 20 puntu eta sei errebote lortu zituen 23 minututan. «Zorionak Ming jaunari. Jokatzen badaki; ez da alferrentzi bat», esan zuen O'Nealek. Erakustaldiak ez dira egun bakarrera mugatu: Dallasi 30 puntu eta 16 errebote egin zizkion; eta San Antoniori 27 puntu eta 18 errebote.

Mingen jauzia itzela izan da, denboraldi hasierako bere batez bestekoak hirukoiztu baititu. Halaber, NBAko zenbait sailkapenetan ohorezko postuetan jarri da: bi puntuko jaurtiketetan lehena, %64ko batez bestekoarekin. Pixkana-pixkana, izarren parera iristen ari da Ming. Abantaila bat bado, behintzat, 2,26ko altuerarekin apur bat errazago ukitzen baitira.



**Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
Tel.: 943 797 564**

Km 00

FOCUS

.....14i - 3 atekoa

FOCUS

.....18 TDi - 3 atekoa

FOCUS

.....16-SW

MONDEO

.....TDi 115 - 4 atekoa(3)

MONDEO

.....TDCI 130 - SW

FIESTA

.....13i - 5 atekoa

FIESTA

.....TDCI - 5 atekoa(2)

DENAK 2002KOAK

KROSA

Amaia Piedra eta Isabel Eizmendi Europako Txapelketan ariko dira gaur

Europako Kros Txapelketak jokatuko dira, gaur goizean, Kroaziako Medulin hirian, eta bi euskal korrikalarik hartuko dute parte bertan, emakumezkoen mailan: Amaia Piedra eta Isabel Eizmendi. Helburu bera izango dute biek: proba ona egitea.

NBA

Lakersek erakustaldia egin du, 4. laurdenean Dallasi 27 puntuko errenta kendu, eta partida irabazita

Los Angeles Lakersek erakustaldi bikaina egin zuten, atzo, Dallas egungo NBAko talde onenari azken laurdenean 27 puntuko errenta kendu eta partida irabazita. Lakers 88-61 kontrako emaitzarekin iritsi zen azken laurdenera, baina Bryanten —21 puntu laurden honetan— eta O'Nealen lanari esker, lehiari buelta eman zion 105-103 irabazita.

IGERIKETA. Munduko Kopako estilo libreko 200 metroetan nagusitu zen



GREG WOOD / AP

Hacketten ezustekoa, Van den Hoogenbandi irabazita

Grant Hackett igerilari australiarrak ezustekoa eman zuen, atzo, Melbournen (Australia) jokatzen ari den Munduko Kopan, estilo libreko 200 metroetako proban garaipena lortu baitzuen. Pieter Van den Hoogenband nederlandarra zen proba irabazteko faborito nagusia, baina Hackettek, etxe-ko zaleen animo oihuen laguntzaz, ezustekoa

eman zuen. Distantzia luzeagoetan espezialista, Munduko Kopa honetako bigarren garaipena da Hackettrena, herenegun, estilo libreko 400 metroetan irabazi baitzuen. Hacketten denbora 1:42:48koa izan zen. Argazkian, Thomas Rupprath igerilari germaniarra ageri da, bizkar estiloko 200 metroetan. Bera izan zen probako garailea.